

LETURIAK BERROGEI ETA HAMAR URTE BETE DITUELA ETA

*Euskaltzaindia.
Deustuko Unibertsitatea*

Ana Toledo Lezeta

Euskaltzaindiak urtean zehar antolatzen dituen jardueretan bere tarteak izan ohi du urteurrenak; izan ere, urteurrenaren ospakizunak idazlea eta bere obra gogoratzeko aukera aproposa eskaintzen du. Aitzakia honetaz baliatuz, idazlea eta bere obra arreta gune bihurtzen da, zeinahi idazlek gustukoak lukeen moduan, bihurtu ere: bere obra berraztertuz. Berraztertuz, bai, denbora ez baita igarotzen alferrik. Eta denboraren joan horretan obra ikusteko modua, obrara hurbiltzeko modua, obra irakurtzeko modua alda daiteke, zeren eta literaturaren sisteman termino bat, obra, idazlana, aldaketarik gabea da, iraunkorra da; ez horrela, bestea, idazlanetik kanpo dagoen mundua. Osagai aldakorra irakurlearen erantzuna da, irakurle honek bere historia propioa, bere hizkuntza, bere askatasuna baitakar idazlanera. Irakurle bakoitzak bere formaziotik, bere garaitik irakurtzen du.

Urteurrenaren ospakizunak, betiere, abagune egokia eskaintzen du sorlana beste garai batetik irakurtzeko. Hala egingo da orain eta hemen, aurten berrogei eta hamar urte betetzen dituen Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuarekin* (1957).

Topiko hutsa da, baina, zinez, berrogei eta hamar urte hauetan gizartea asko aldatu da. Jakina, baita euskal gizartea ere. *Leturiaren egunkari ezkutuak*, berriz, duela berrogei eta hamar urte bezalaxe dirau. Idazlanaren hartzailea, ordea, aldatuz joan da. Horregatik, urteurrenak *Leturiaren egunkari ezkutua* berrirakurtzeko parada aproposa eskaintzen zuela uste izan du Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak eta horretarako Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Uda Ikastaroen barnean honako biltzar hau antolatu du.

Gauza ezaguna da estrukturalismo txekiarrean Jan Mukarovskyk literatur kritika eta literatur historia elkarrengandik berezirik atzematzen zituela. Kritikak, gauzatuta dagoen egitura iraunkor legez ikusten du literatur obra; historiak, bere aldetik, egitura hori bera mugimenduan atzematzen du, elementuen truketze etengabea. Mukarovskyrentzat literatur historiak honako irizpide honetan oinarritu behar du: berrikuntza-maila.

Leturiaren egunkari ezkutua berrirakurtzeko Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak eratu duen biltzar honetarako egitaraua osatzean, literatur ikaskuntzen bi ikuspuntuotatik aztertzea bilatu du, azterketa sinkronikoari azterketa diakronikoa batuz. Lehen-lehenik azterketa diakronikoari heltzen zaio; izan ere, *Leturiaren egunkari ezkutua* plazaratu aurretiko eleberrigintza izango da aztergai, helburu jakin batekin: mende erdia bete duen eleberriak euskal eleberrigintzara egindako ekarria arakatu. Arestian Mukarovskyren hitzetan esaten zenez, idazlan batek dakarren berrikuntza-maila neurtzea da literaturaren historiaren eginkizuna. Berrikuntza-maila hori neurtzeko ardatz diakronikoan kokatu behar da *Leturiaren egunkari ezkutua*. Euskal eleberrigintzaren historiara egin duen ekarriaz jabetzeko, ezinbestez, bere lehen aldiko eleberrigintzaren argitan atzeman behar da.

Leturiaren egunkari ezkutua argitaratu aurretiko euskal eleberrigintzaren tradizioa laburra den arren, tradizio hori mamitu duten eleberri guztiei tartea egiteak, abantailak baino gehiago desabantailak zituen. Batetik, biltzar honetako aztergunea nagusiak, *Leturiaren egunkari ezkutua*k, nagusi izan gabe gelditzeko arriskua zuen; hau da, bere aurreko eleberrii tarte zabala eskaintzeak, aztergunea behar beste nabarmendu gabe uzteko arriskua zuen. Bestetik, gerraurreko euskal eleberrigintzak emandako uzta homogeno samarra da. Guzti horregatik euskal eleberrigintzara zuzendutako begirada *Leturiaren egunkari ezkutua*ren lehen aldi hurbilaren azterketara mugatzea egokiagoztatzen da; hots, 1946-1957 urteen artean garatutakora.

Hala, Leturiak agerrera egin aurretiko euskal eleberrigintzaren azterketak osatzen du egitarauaren lehen atala, asmo jakin bat gogoan: bere lehen aldi hurbileko eleberrigintzaren ezaugarriak azaldu, *Leturiaren egunkari ezkutua* giniko ekarria deskribatu eta neurtu ahal izateko. Alegia, bere lehen aldi hurbila aztertuko da, mende erdia betetzen duen idazlanak dakarren berrikuntza-maila zedarritzeko.

Leturiaren egunkari ezkutua da egunotako arreta gunea. Honenbestez, bere lehen aldi hurbileko eleberrigintza arakatu ostean, urteak betetzen dituen idazlanera bilduko da biltzarreko jarduna. Berez, bere lehen aldi hurbileko eleberrigintzaren azterketak, orain eta hemen, ez du interesa bere baitan, bi-tarteko moduan baino: *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzaren historian kokatzeko bitarteko gisa, hain zuzen ere. Arreta gunea den eleberria historian kokatu ostean, bere baitan eta hartzailearekin harremanean aztertuko da. Azterketa inmanenteek egitura horren barneko zenbait alderdi arakatu dituzte: alderdi zehatz batzuetan erreparatuko dute xehe-xehe miatzeko asmoarekin. Idazlana-irakurlea harremanari dagokionez, nola argitaratu zenean eragin zituen irakurketa-moduak, hala egungo egunetik begiratuta eragin ditzakeenak jorratuko dira. Bestela esanda, *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzan egin zuen agerrera nola hartu zuten orduan aztertuko da batetik, eta berrogei eta hamar urteren ostean, zein irakurketetara irekirik jarrai dezakeen, bestetik.

Honela bada, biltzarrerako prestatutako egitarauak *Leturiaren egunkari ezkutua*ren barne-azterketa egiteaz gain, idazlanetik at dauden elementuekin ere jarriko du harremanetan, bai orduko eta gaurko hartzailearekin, bai bere lehenaldi hurbileko eleberriekin. Beraz, idazlanak berak eratzen duen sistema aztergai izateaz gainera, sistema hori beste sistema batzuekin jarriko da harremanetan, dela euskal eleberrigintzaren sistemarekin dakartzan berrikuntzak nabarmentzeko, dela hartzailea den osagai aldakorarekin, harrera-modu desberdinak atzemateko.

Euskal literaturari buruzko kritikari ez zaio, horregatik, iruzkinik gabe igaro *Leturiaren egunkari ezkutua*. Ezin izan zitekeen beste modu batean. Nola ez erreparatu euskal eleberrigintzan ezezagunak ziren ezaugarriak jantzita zetorren idazlanean? Nola ez ohartu ordu arteko eleberrigintzak euskarri izandako mundu-ikuskerarekin hausten zuen eleberria aurrean izanda? Arreta erakartzeko modukoa zen.

Ziurtasun-izpirik gabeko pertsonaiak egiten zuen agerrera, ordu arte ziurtasun tinkoen gain bizi izan zirenean, fikzioan bizitza hartu zuten pertsonaia guztiak. Zoru irmo baten gainean jarri dituzte oinak euskal eleberria bizileku izan duten pertsonaia nagusiek: zalantzaren harrak harrapatuta bizi da, berriz, Leturia. Egunkari ezkutuan idazten ditu bere istorioa eta gogoetak, bera heldu baino lehen idatzitako istorio guztiak kontalari orjakileak kontatu dituenan. Leturiaren egunkari ezkutu bezala aurkezten da eleberria, nahiz eta gero egunkariaren konbentzioak behintzat ez jarraitu, ez zentzu hertsian, ezta zabalean ere; izan ere, egunkaririk ezer gutxi du egutegiak markatzen ez duen denbora batean bizi den Leturiak papereratzen duenak: egutegiari eta ordulariari ihes egiten dion denbora batean bizi da. Bere egunkariak barne-denbora baten berri ematen du, bizi duen prozesuaren berri, prozesu honek eragin dion bilakaera agerian jarritz. Bere lehen aldiko eleberritako pertsonaiekin ez du partekatzen ez bizilekurik, ezta kultura-mailarik ere: Leturia kaletarra da eta, bere gogoetek eta ezaguerek aditzera ematen dutenez, gizon jantzia da. Eta, nola ez, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen heroia gatazkatsua.

Horra hor euskal kritikak Leturiarengan atzeman dituen berrikuntza nabarmenariakoak. Biltzarrari hasiera emateko uneak hitza hartzeko eman didan aukera baliatu nahi nuke, berrikuntza nabarmen horietako batera biltzeko ondorengo jarduna: Leturia euskal eleberrigintzako lehen heroia gatazkatsua izatearen gaira, hain juxtu.

Lehen heroia gatazkatsua

Jakina denez, gerra egunetan beraietan azken eleberria argitaratu ostean, zehazki 1937an, bederatzirtertakoa isilaldia igaroko du, harik eta, 1946an jarraipena berreskuratzen duen arte.

Gerraurreko eleberrigintzan (1898-1937) nekez aurki daiteke heroia gatazkatsurik. Bederatzi urteko isilaldiaren ondoren berriro plazaratzen denean eleberria 1946an, heroia gatazkatsuak agerriararik egin gabe jarraituko du.

Gatazkatsuak esan nahi badu norbere buruarekin, norbere erraiekin edo munduarekin konformagaiztasunen bat bizi delako, desoreka hori gaintzeko moduren baten bilaketari ekiten zaiola, bistakoa da Leturia heroia gatazkatsua dela. Arazo edo gatazka pertsonal bat dauka eta gatazka horri irtenbidea bilatu nahian dabil. Bere burua da arazoa sorrarazten diona: zoriona eskuratu nahi du, baina egiten dituen saioek frakasoan amaitzen dute, harik eta bere bilaketaren giltzaren kokalekua aurkitu duela uste duenean, Imiriozko leizean gorpu gelditzen den arte. Ezin izan du jaso bere egunkarian nola heldu zitzaion heriotza: istripu baten ala bere buruaz beste egitearen ondorio izan zen. Leturiaren egunkaria ezagutzera ematen duen biltzaileak ere ez du argitzen heriotzaren kausa.

Lehen heroia gatazkatsua omen Leturia. Ez dira asko gatazkaren bat bizi izan duten euskal eleberrietako pertsonaia nagusiak *Leturiaren egunkari ezkutu*ko Leturia heldu arte. Pertsonaiaren kristau sinesmenak eta sinesmen honeatik eratorritako eroapenak gatazka posiblea gaintzeko ahalmena zuen. Eroapena, berriz, ez dago Leturiaren hiztegian. Leturiak ez daki zer den eroapena eta frakaso bakoitzaren ondotik bilaketa berri bat hasten du.

Izan bada gatazkan bizi den pertsonaiarik, baita gatazkaren aurrean eroapenik ez duen pertsonaiarik ere, Leturia iritsi aurretik. Halako pertsonaiak aurkeztera heldu arren, bizi duten gatazkaren oinarrien eta gatazka horri aurre egiteko ibilitako bidearen berri ez da xehe-xehe adierazten. Gainera, gatazkari emandako irtenbidean kristau sinesmenaren legeak urratzen badituzte pertsonaiok, istorioaren amaieran onbideratuko dira eta bete beharreko penitentziak betetzeko prest agertuko.

Gerra ondoko euskal eleberrigintzan oraindik tarte handia du eroapenak. Izan badute arazorik Leturiaren aurretik euskal eleberririk bizileku izan dituzten pertsonaia nagusiek, baina, modu batean ala bestean, arazoa modu arazo-tsuari bizi izatea saihestuko dute.

Esan bezala, urte batzuetako isilaldiari amaiera jartzen dio euskal eleberrigintzak 1946an. Bidasoaz honantz Gerra Zibilak (1936-1939) ekarri zuen euskal adierazpenaren debekua. Bidasoaz harantz horrelako debekurik jasan ez arren, urtealdi hauetan ez zen landu eleberria. Mugaz bi aldeetako egileen eskutik datoz 1946an argitaratutako bi eleberririk, nahiz eta alderik badagoen argitalpen-lekuari dagokionez. Iparraldeko Jean Pierre Iratxet-en *Antton, Herra* aldizkariak eman zuen atalka-atalka; Joseba Andoni Irazusta tolosarraren *Joañixio*, berriz, Buenos Aireseko Ekin argitaletxeak. Erbesteratu batengandik datorren eleberria da eta erbestean argitaratua.

Iratxet-ek sortutako Anttonen bizimodua ez da erraza: lehenik, sorlekua utzi eta, Ameriketara joan beharra du; hurrengo, bigarren mundu-gerrako

egunetan, Frantziako soldaduekin batera alemaniarren aurkako gerrara... Zailtasun horiek gutxi ez direla, Maixanek emana zion ezkontzeko hitza hautsi egiten dio, baina Antton ez da jarkiko, ez da errebelatuko, ez da ernegatuko... Zailtasun horiek ez ditu gatazka-iturri izango Anttonek. Egoera latz hauek bizi izatea suertatu zaio, besterik gabe. Bizi izandako zirkunstantzia gogorrek ez dute inolako eraginik berarengan.

Irazustaren eskutik datorren *Joñixioko* Joñixiok badu arazorik; izan ere, batetik, soldadutzara joateko ordua heldu zaio eta saihestu nahi du; bestetik, bere baserriko lanetik ateratako irabaziarekin ez du bizimodua aurrera ateratzerik: gurasoen esana entzunaz Ameriketara joango da. Arazo bihurtu gabe hartzen duen erabakia da. Halaber, ez du arazo bihurtuko Panpan eraman behar duen bizimodu latza, ezta bere barnean daraman herrimina ere. Ez bata, ez bestea, izango ditu narrazio-iturri kontalariak. Helburuak eskuratu ostean itzultzen denean nabarmentzen ditu bidaiak utzi dizkion ajeak: makal dabil osasunez eta damuturik dago Ameriketara joan izanaz. Baina, lanak eta lanbideak ekarritako isulamenduak eragindako bakardadeak gobernatzen dituzten Panpako urte luzeak ez ditu gatazka-sortzaile: eroapenarekin erantzuten dio bizimodu gogorrari.

J. Eizagirreraren *Ekaitzpean* (1948) eleberrira datozen Aritzondo baserriko bizilagunek badute jarkitzeko, errebelatzeko motiborik: lehenik, semerik zaharrenaren heriotza gerran, jarraian, gerran zauritutako Xabier babestea eta segidan, zauritua salatu dutelako, Aritzondoko bizilagun batzuen ihesa. Etsipenez betetako pertsonaia horiek, negar handirik gabe, jasan egiten dute. Errebeldiak, madarikazioak, ernegazioak eta berauen adierazpenak ez du tarterik.

Eleberriotan bada pertsonaia asaldatzeko besteko gertaerarik. Gerrak, bizimodua aurrera ateratzeko emigratu beharrak... sorrarazitako bizitza-baldintza oso zailak, pertsonaiaren nortasunean nahiz beronen balore-sisteman berebiziko eragina izan zezaketen. Pertsonaion eroapenak, ordea, esperientzia latzok gatazka-iturri bihurtzea deuseztatzen du.

Joseba Andoni Irazustaren bigarren eleberrian, *Bizia garratza da* (1950) eleberrian, izan bada arazorik: Andoni Uriaurrek eta Ander Zubiburuk gerra dela bitarteko, erbesteratu egin behar izan dute. Guda madarikatu baten ondorioak bidali ditu Kolonbiara. Beharrak eraman ditu Ameriketara eta asetzen ez dituen bizitzara kondenatu. Bordeleko portutik Kolonbiarantz ateratzen diren egunetik ez dute une batez ere ezagutuko ongi izatea, zoriona. Beti gogoan daramate izan zitekeena eta, gerrak eragotzi duelako, izan ez dena.

Atzerrian bizitza berrantolatzea erabakitzen dute. Gerrak beren ibilbidea moztu duenez, orain beste bat hasi beharrean daude. Bizitza berregiteko, isilean, beren sentimenduak adierazi gabe, maite zituzten neskez oroitzen dira. Baina, hauengan ere eragin du gerrak eta denborak: Anderrek isilean maite zuen Miren Orreaga lekaiume sartu da, arrebak idazten dion eskutitzak dioenez; Bixentak, Andonik isilean maite zuen neskak, alaba izan du kapitain batekin.

Isilean maite zituzten neskekin ezkontzea zen bizi zuten arazoari (aberrina, bizitza etenda) aurre egiteko aurreikusitako irtenbidea. Anderrek «onartu» egiten du Mirenen egoera berria. Miren behar bazuen zoriona berreskuratzeko ez du bilatzen Mirenekin harremanetan jarri eta egoera aldatzea. Etsi egiten du. Eta gerraren zauriari zauri berri hau gehitzean, Miren galduta dena galdutzat joaz, basamortura abiatuko da urre-bilaketara. Zorrak, gaitza eta heriotza ekarriko dizkio urre-bilaketak.

Maite zuen Bixentarekin ezkonduko den arren, ez du zorionik eskuratuko Andonik. Bixentak kapitain batekin izandako alaba da kausa: burutik ezin ken dezakeen gertaera da. Azkenean, zailtasuna gainditu eta, Andoni Bixentaz bermaitemintzera helduko da, baina zorionaz gozaten hasi aurretik istripu batek heriotza dakarkio.

Ander eta Andoni ez dira pertsonaia gatazkatsuak, problematikoak, baizik eta gerrak bizitza moztu eta atzerrira jaurti dituenak. Gerrarik izan ez balitz, sorterrian egingo zuten bizitza dute gogoan atzerrian: isilean, maite zituztela esan gabe zeuzkaten neskekin ezkondu. Anderrek eragozpenen aurrean etsi egiten du. Andonik eragozpena eta guzti –Bixentak kapitainarekin izandako alaba du– frogaren emaitza frakaso da. Gero, nola ez daki-gula, ez baita inolako prozesuren berri ematen, sentimendu-aldaketa ezagutzen du Andonik. Sentimendu-aldaketak zorionerako bidean jartzten duen arren, zorionaz gozaten hasi aurretik helduko da gorpu utziko duen istripua.

Irazustak ez ditu aurkezten pertsonaia gatazkatsuak, baizik eta dena gaizki atera zaien pertsonaiak. Gerrak elbarritu ditu, gerrak atzerrira bidali ditu eta aurrerantzean ezingo dute beren bizitza berrantolatu. Gerraren kondenatuak dira, bizitza berri bat hasteko aukerak ezabatzeak adierazten duenez. Hain da hala, non zoriona eskuratzeko atarian istripu batek, ez-usteko batek, heriotza dakarkion Andoniri.

Bi euskaldun zintzo dira Ander eta Andoni. Ordu arteko euskal eleberrigintzak ez du gorde hain bukaera garratzik euskaldun zintzoentzat. Euskaldun zintzoek merezi ez bezalako amaiera duten lehenbiziko pertsonaiak dira euskal eleberrigintzan. Horrela irudikatu nahi izan du Irazustak gerrak dakartzan galerak: gerrak galarazi egiten du bizitza berregitea. Alabaina, gerra eta bere ondorioen garratzasuna irudikatzeke ez du jo beren egoera problematizatzen duten eta irtenbide bila dabiltzan pertsonaia batzuen ibilbidearen berri ematera. Besterik da leku narratibora daramana: beren arazoarentzat aurreikusitako irtenbideak huts egiten dieten pertsonaiak. Hitz batean, ezbeharren metaketa bide eta, ez irtenbide bila dabilen heroiaren bidez, adierazten ditu gerrak eragindako kalteak. Kontalariak ez ditu mamitzen Ander eta Andoni beren egonezinari irtenbidea bilatzen ari diren pertsonaia moduan, baizik eta egonezina gainditzeko hartutako erabakiak bete ezinik. Bete ezinik, eragozpenen bat dagoelako eta eragozpenaren aurrean etsi egiten delako –Anderrek etsi egiten du maite zuen Miren Orreaga moja sartu dela jakitean– edo eragozpena

gainditzera iritsita ere, –Andoni Bixentaz bermaitemintzen da– ez-ustekoren batek (istripu batean hilotz gelditu) galarazi egiten diolako heroiarri lorpenaz gozatzea. Erabakiak betetzea eragotzi egin zaie pertsonaia hauei. Ez daude eraturta xede baten bilaketan etsipenik gabe diharduten pertsonaia moduan, baizik eta xede bat bete ezin izan duten pertsonaia moduan.

Eroapenak gobernatutako eleberrigintza baztertzen duena Jon Etxaide da. Langintza literariorako gertaera historikoak, ustez historikoak edo legendazkoak izan zitezkeenak erakarri duten Etxaide, hain zuzen ere. *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu aurretik ezagutzera eman zituenak atzematen badira, lehen-lehenik plazaratu zuen *Alos-torrea* (1950) eta honen ondoko *Joanak-joan* (1955), bistakoa da Euskal Herriaren lehen aldira egiten duen bidaian, pertsonaia grinatsuak topatu zituela. Beren grinak asetzea jomuga soil zuten euskaldunak aurkitu zituen iragandako denbora horietan: Otxanda, Piarres, Engrazi... Grinatsuak ez ezik, bekatu larrien egileak: Jaungoikoaren Hamar Aginduak betetzen ez dituztenak, kristau zintzo-zintzoa zen ustea eraikita zegoenean euskaldunari buruz. Gisa honetan agerian uzten du hain zintzoak ez ziren euskaldunak ere egon zirela. Arauak urratu zituzten euskaldunak ere egon zirela, alegia. Baina, arau-urratzaile hauek ezin izan ditu kondenatu: egindako gaiztakeriez damutzen dira arau-urratzaileok, kaltetuaren barkazioa jasotzen dute... Pertsonaia zintzo eta zintzotuekin osatzen du istorioaren amaieran erakusten duen erretratua.

Dena den, bada alderik *Alos-torreako* eta *Joanak-joaneko* pertsonaia grinatsuen artean. Luzeraz gain, –*Alos-torrea* eleberri laburra da–, pertsonaia grinatsu eta bekatu larrien egile horiek istorioaren harian hartzen duten lekuak bereizten ditu Etxaideren bi eleberriak. Pertsonaia nagusia da *Joanak-joanen*, ez horrela, *Alos-torrean*.

Pertsonaia grinatsu eta bekataririk bazen gerraurreko eleberrigintzan ere. Haatik, beti bigarren mailako pertsonaia izatera mugatua. Aitzakia hutsa zen pertsonaia nagusiaren egote-moduak eta bertuteak gehiago distira zezaten. Zinez, bigarren mailako pertsonaia honi oso tarte narratibo txikia ematen zion kontalariak: grinena eta bekatuen azalpenak leku gutxi hartzen zuten narrazioan. Badaezpada kontalariak xehetasun gutxi ematen zuten eredugarriak ez ziren pertsonaia horien bizitza eta pentsamenduak. Hala, eredugarria ez dena erakustea saihesten zuten eta eredugarria dena azpimarratzeko bitarteko bihurtzen. Alderdi honetatik begiratuta, bada alderik gerraurreko eleberrigintzaren eta Etxaideren *Alos-torrearen* artean. Etxaidek leku narratibo zabalagoa eskaintzen dio grinena eta bekatu larrien azalpenari. Baina, *Alos-torrean* oraindik grinen ez dute harrapatu pertsonaia nagusia. Grinen azalpenak bigarren mailako pertsonaiengan jarraitzen du eta grinok eragindako bidegabekeriak jasaten segitzen du pertsonaia nagusiak. *Alos-torreako* Usoa pertsonaia nagusiak badu arazorik: Otxanda ama-ordearen gorroto, difamazio eta zigorpean bizi da. Eroapenarekin erantzungo du. Beraz, eroapenak jarraitzen du pertsonaia nagusiaren jarrera mugatzen.

Ez da horrela gertatzen Etxaideren bigarren eleberrian, *Joanak-joan* izenburuean argitaratutakoan, alegia. Izan ere, Piarres pertsonaia nagusi grinatsuak ez daki zer den eroapena. Konformidadea zer den ezagutzen ez duen Piarres bere kanpo aldearekin etengabeko gatazkan bizi da eta ez dago prest bere aurkako erasotzat jotzen dituen ekintzak erantzunik gabe pairatzeko. Pertsonaia nagusi konformistez elikatu den ordu arteko eleberrigintzatik urruntzen bada ere, ez ditu hausten lokarri guztiak *Joanak-joanek*: euskaldun bekataria berreskuratzu jarraitzen du. Txomin Agirrek *Auñemendiko Lorean* (1898) berreskuratu zuen bezala. Txomin Agirrek Portun jentila, Adalbaldo frankotar dukearen hiltzailea, kristautu eta, herririk herri Jesukristoren legea zabalduz eta bere bekatuak aitortuz zebilela utzi zuen «guena» deitu zuen epilogoan. Etxaidek ere, Piarresen emazte Engraziri heriotzako ordua heltzen zaionean, nahiago izan du ezkondu zirenez gero kupida gabe elkarren etsai izan direnak adiskidetu eta Etxahuniako ateak zabaldu Piarresi. Ez da berreskurapen makala: Etxahuniako oinordeko zenari bere etxeko ateak irekitzen dizkiote azkenean, bizitzaren aldi luze batean aterperik ere eman ez diotenean.

Etxaidek ezin izan du etsi eleberriaren amaieran ordena berrezarri gabe: emaztearekin adiskidetu, elkarri barkazioa eskatu, etxea berreskuratu... Etxeko oinordekotza eskuratzeko eragozpenekin hasi direnean Piarresen etengabeko arazoak.

Honela bada, bekatu larriak egin dituztenei, dela adulterioa, dela hilketa... ez die salbaziorako bidea ixten Etxaidek: *Alos-torreako* Usoa zintzoaren epaia barkamena da eta zeharo gaiztoa zen ama-orde Otxanda damutu eta, lekaike sartuko da eragindako kalte guztiak ordaintzen joateko. Elkar zigortzen urteak eta urteak igaro ostean barkamena eskatuz amaituko dute *Joanak-joaneko* Piarres eta Engrazik. Eleberriaren amaieran ordena berrezartzen du. Grinek eragindako hondamendien eragileek barkazioa jasotzen dute: gaiztoak onbidetzen dira. Horregatik Etxaidek ordena zuzena berrezartzen du.

Ordena zuzenari eusteak eragina izan daiteke, halaber, J. A. Loidik bere *Amabost egun Urgaiñ'en* (1955) eleberrian kontatzen duen istorioari emandako bukaera. Etxaidek *Joanak-joan* argitaratu zuen urte berean kaleratua, euskal eleberrigintzako lehen polizi eleberria da. Polizi eleberri berezia, ordea; izan ere, Garaidi ikerlariaren ikerketek hilketarik ez zela egon argitzen dute: istripu baten ondorioa besterik ez da izan hilketaren susmoa sorrarazi duen zantzua. Hala, lehen polizi eleberria hiltzailerik eta hilketarik gabekoa da. Larria, oso larria izango ote zen Urgaiñ bezalako euskal herrixka batean hiltzaile bat egotea?

Etxaidek *Joanak-joanen* kontatzen duen istorioaren amaieran ordena berrezartzen badu ere, istorioaren garapenean lokarriren bat hausten du lehen aldierikiko: lehenbiziko aldiz pertsonaia nagusia grinatsua da euskal eleberrigintzan. Pertsonaia grinatsurik baldin bada euskal eleberrigintzan *Joanak-joaneko* Piarres da hori. Pertsonaia grinatsua izan baitzen Piarres Topet «Etxahun» pertsona

historikoa ere. Pertsona historiko hau abiapuntu hartzen duen eleberrian pertsonaia grinatsua irudikatuz behartua ere bazegoela esan daiteke.

Arazoa arazoaren atzetik duen pertsonaia aurkezten du Etxaidek. Arazo horien aurrean eroapenik edo etsipenik ezagutzen ez duen pertsonaia, gainera. Haatik, Piarresek ez du arazo bihurtzen arazoa; izan ere, buruhaustetan murgildu gabe, unean-unean sortutako gatazkari erantzun egingo dio: gogoko ez duen arren, gurasoek hautatutako Engrazirekin ezkondu egingo da; emazteak maitalea duela jakitean azkar asko erreakzionatuko du ustezko maitaleari tiro eginaz, gero, pertsonaz erratzearen ondorioz, beste norbait izan bazen ere, hilotz gelditu zena...

Euskal eleberrigintzaren sorreratik *Leturiaren egunkari ezkutua* kaleratu arteko tartean argia ikusi zuten eleberrietako pertsonaia nagusiak aztertuz gero, Joxeba Leturia eta *Joanak-joaneko* Piarres dira eroapena eta etsipena ezagutzen ez duten bakarrak: biak dira pertsonaia grinatsuak, apasionatuak, jarduleak –bata, gogamena bide, bestea, ekintza bide–, beren burua besterik gogoan ez duten pertsonaia.

Nahiz Piarresek, nahiz Leturiak eragozpenak dituzte beren xedeak eskuartzeko. Kanpo-munduak jartzen dizkio oztupoak Piarresi, bere barne-munduak, berriz, Leturiari. Helburuen lorpenerako oztupoak ipintzen dituztenen kokalekua desberdina den arren, biak dira oztupoak aurre egiten dietenak. Alderdi honetatik begiratuta Piarres litzateke Leturiaren antzik handiena erakusten duen pertsonaia.

Alabaina, bere kezka filosofikoetan galdurik dabilen Leturiaren eta bere grin menpe bizi den Piarresen artean bada alderik. Leturiak modu gatazka-tsuan bizi du bere gatazka: une bakoitzean bizi duen arazoak oinazetu egiten du. Ez horrela, Piarres; izan ere, bere arazoek sorrarazi diezaioketen sentimenduek ez dute eragiten kontajariorik.

Bere arazoari irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia bezala mamitzen da Leturia egunkariaren orrialdeetan barrena. *Joanak-joaneko* kontalariak, berriz, ez du aurkezten bere arazoei irtenbidea bilatzen ari den pertsonaia. Batak eta besteak arazoaren aurrean hartzen duten jokabidea gisa honetan laburbil daiteke: bata irtenbide bila dabil; bestea, ez dator testura irtenbide bila, baizik eta sorrarazi dioten arazoari erantzunaz. Leturia irtenbidea bilatuz dabilen pertsonaia bezala itxuratzen da. Piarres, berriz, ez dator testura irtenbidea bilatuz, erabakiak gauzatuz baino. Honela, Leturia nola doan eginaz erakutsi egiten da testuan, ez horrela, Piarres.

Leturiak eginiko ibilbidea egunkariaren orrialdeetan adierazia dago. Aitzitik, *Joanak-joaneko* kontalariak ez du erakusten Piarresen ibilbidea. Kontatzen ditu, jakina, Piarresek egindako eta jasandako gertaerak, baina ez ditu ikertzen kausak: kausa esatera hel daitekeen arren, –aitaren antzik ez izatea oinordekotza kendu nahiaren arrazoi bezala, adibidez–, inoiz ez da xehetasu-

nez azaltzen. Ez dago ekintzen justifikaziorik: pertsonaiaren izaera odol beroak justifikatzen du guztia. Bestela esanda, gatazka nola doan sortuz, egoerei erantzunak nola doazen egosiz ... ez da hitz bihurtzen: ez da ekintzen azterketa zorrotza egiten. Nola doa haziz gurasoen gorrotoa Piarresekiko? Aitaren antzik ez izateak justifikatzen du guztia? Nola doaz Engrazi eta Piarres ezkonberrien arteko harremanak gaiztotzen? Nola ernetzen zaio Piarresi kartzelan dagoela erromesaldiak egitera daraman sentimendu erlijiosoa?... Sentimendu desberdinek eragindako ekintzen berri ematen da, ez ordea, sentimendu horien ernetze eta hazte prozesuaren berri. Prozesurik ez dago, prozesurik ez da testuratzten: testuan emaitzak daude, emaitzaren justifikazioa usteren batera edo labur labur emandako berrira mugatuz. Horregatik ez dago ibilbiderik. Ekintza batetik besterako bidea nola egiten den ez da narrazio-iturri.

Aldiz, Leturiaren egunkariak bere barne-prozesua jasotzen du, nola erdiesten duen zoriona eta nola galtzen duen, nola doan pilatuz frakasoak. Hone-la egunkarian barrena bere bilakaera jarrai daiteke. Udaleneko Leturia eginaz doa, bizi izandakoaren eraginpean haziz doa. Esperientzia, eskarmentua moldatuz doa bere nortasuna. *Joanak-joane*ko kontalariak ez du adierazten nola doazen ernez eta haziz sentimendu desberdinak Piarresengan, nola doazen egosiz sentimendu horiek, ezta berarekin gatazkan dauden pertsonaien sentimenduak nola doazen garatuz ere.

Biak dira gatazkatsuak eskuratu nahi dutenaren aurrean amore emateko prest ez daudelako, nahi dutenari uko egiteko prest ez daudelako, eroapena eta etsipena ezagutzen ez dutelako, baina, batean, justifikatu egiten da gatazkaren garapena, bestean, ez.

Honela bada, modu batean edo bestean, gerra osteko euskal eleberrigintzan pertsonaiak arazoa ez du modu arazotsuan bizi izan. Ia eleberri guztiak pertsonaia jasanokorrez elikatu direlako eta, hala izan ez denean, arazoari modu arazotsuan aurre egiten dion pertsonaia mamitzeari uko egin diolako kontalariak. Bestela esanda, pertsonaia ez problematikoa –eroapenez jasaten dituztenak bizi beharra suertatu zaizkien zailtasunak– ala kasuren batean problematikoa (*Joanak-joane*ko Piarres) aurkez dezakete *Leturiaren egunkari ezkutua* baino lehen idatzitako eleberriek. Baina, pertsonaia problematikoa honek ez du problematizatzen bere problema, kontaketa ez baita itxuratzen bere problemarekin jira eta bira dabilen pertsonaia, problemaren alderdi desberdinak aztertzen eta irtenbideren bat bilatzen. Arazoa arazo bihurtzen ez duenez, kontalariak ez du xehetasunez azaltzen nola bizi duen pertsonaiak desoreka eta nola bilatzen duen oreka berreskuratzeko modua. Hau da, kontalariak ez du moldatzen gatazka modu gatazkatsuan bizi duen pertsonaia. Horregatik, Leturia da euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia problematikoa, gatazkatsua: gatazka modu gatazkatsuan bizi duen lehenbiziko pertsonaia. Leturiak arazoa arazo bihurtzen du eta, berez, uanean uneko arazoa eta berau gaınditzeko egindako bilaketa jasotzen du bere egunkariak. Hainbestearino du egunkaria arazoak eta arazoentzako irtenbide-bilaketak adierazteko leku, non arazorik

gabe bizi izan zen sasoiari, Udan, ez zuela ezertxo ere idatzi egunkarian. Problematikotasuna eta problematikotasuna bakarrik da Leturiaren hitz-jarioa bultzatzen duena. *Joanak-joaneko* istorioa kontatzen duen kontalaria Piarresek nola bizi duen problema azaltzen ez da «gelditzen»: problemak eragindako hausnarketak eta problema gainditzeko joateko emandako urratsak ez ditu narrazio-iturri.

Leturiak bere xedea eskuratzeko egiten duen bidea urratsez urrats adierazia dago: bere «ekintza» bakoitzaren justifikazioa bere egunkariaren orrialdeetan dago. Bestela jokatzeko du *Joanak-joaneko* istorioa kontatzen duen kontalaria; izan ere, Piarresek bere helburuak lortzeko zein ekintza burutzen duen esan arren, ez du adierazten ekintza horretara heltzeko jarraitu duen bidea eta, ondorioz, ekintza justifikaziorik gabe gelditzen da. Horregatik, batean bilaketa dago, bestean, ez. Batean arazoa nola jaio den, arazoak sorrarazten dion egonezina eta egonezin hori gainditzeko abian jarritako asmoak testuan daude, bestean, arazoari emandako erantzunak soil-soilik.

Euskal eleberririk bere sorreraz gero pertsonaia ez problematikoak aurkeztu ditu. Etxaidek berak *Joanak-joaneko* Piarresekin pertsonaia problematiko baldin badakar ere, ez dakar bere arazoak modu problematikoan bizi dituen pertsonaia. Nola doazen arazoak sortuz, nola doazen bilatuz arazo horientzako irtenbideak ... ez du kontatu. «Nola» hori kontatzen du lehenbiziko aldiz *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Honenbestez, bere nahia betetzeko etsipenik gabe ekin egiten duen euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia nagusia Leturia ez izanagatik, bada bere xedearen lorpenaren bila dabilen lehen heroia euskalduna.

Bila dabilen lehen heroia izatean ez da agortzen bere ekarria. Bada besterik ere. Horregatik, Leturiak euskal eleberrigintzan agerrera egin zuenetik mende erdia igaro denean, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak 2007ko Uda Ikastaroek eskainitako gune akademikoa leku aproposa izan zitekeela uste izan du Txillardegiren lehen eleberria berrirakurtzeko. Aberasgarri suerta dakigula biltzarra.